



ESKABIDEA ON-LINE BETETZEKO OHAR INPORTANTEAK. PERTSONAL IRAKASLEAREN ZERRENDAK

Eskabidea formalizatzeko:

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatuz, ixten ez bada, eskabidea ez dela aurkeztu interpretatuko da.

Prestakuntza akademikoa:

On-line eskabidearen prestakuntza akademikoaren atalean, zerrendara sartzeko baldintza gisa eskatutako titulu ofizialak besterik ez da adierazi behar eta, baremoaren ondorioetarako, beste titulu batzuk: Gradua, lizentziatura, diplomatura, master ofiziala (1393/2007 errege dekretuaren bidez arautua) edo doktoretza.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa ez den beste prestakuntzarik ez da inolaz ere adierazi behar, hauek esate baterako: ikastaroak, zerbitzu-orria ... ez baitira prozesu honetarako baliagarri.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna:

Hezkuntzako 2.HE edo baliokideren bat –Europako marko bateratuko C1-irekitako zerrendetarako, baliozkoak dira hurrengo tituluak:

- HAEEko 3. HE (IVAP)
- HABEko 3.maila
- Osakidetzako 3.HE
- Ertzaintzako 2.HE
- Hezkuntzako 2.HE
- EGA
- Euskaltzaindiaren D titulua
- Labayru Institutuaren 3. maila (1982-09-19a baino lehenago eman bada)
- Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Ziurtagiria edo 5. maila (RD 47/1992 ikasketak-plana)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Maila (C1) edo Hizkuntza-eskola ofizialetako beste batzuk, C1 mailaren arabera.
- Unibertsitatearen C1 ziurtagiria, euskarazko titulu eta hizkuntz ziurtagiriak egiaztatu behar izatetik salbuesteari buruzko 47/2012 dekretuak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Hezkuntzako 1.HE edo baliokideren bat –Europako marko bateratuko B2- irekitako zerrendetarako, baliozkoak dira hurrengo tituluak:

- PL2-IVAP
- HABE-2
- PL2-Osakidetza
- PL1-Ertzaintza
- PL1-Irakaskuntza
- HLEA-Hezkuntza Berezia
- GUMA- (1993/04/02ra arte)
- IGA- (1993/04/02ra arte)
- 4º EOI (47/1992 ED Ikasketa plana)
- HEOKo Maila Aurreratua (1629/2006 Ikasketa plana)
- Ikastexte publikoaren ziurtagiria, 47/2012 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian adierazita.
- Ikastexte pribatuaren ziurtagiria, Hezkuntzako Ikuskaritzak ontzat emanda, 47/2012 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian ezarrita.